

Manu Quintanilla Euskadiko eta Bizkaiko txapeldun ziklo-krosean Master50 kategorian

Arratiarrek protagonismo berezia euki dabe Euskadiko eta Bizkaiko Txapelketetako Master50 kategoriako proba bietan. Bizkaiko Txapelketan Quintanilla igorretarrak amaitu eban lehen postuan, Iñaki Parada bediartzarrak egin eban bigarren eta Juan Lazpita dimoztarrak hirugarren; Euskadiko Txapelketan be lehen postu biak eskuratu ebezan Quintanilla eta Paradak eta Lazpitak laugarren amaitu eban. **11. orrialdea**



Nerea Zuloaga: Manttalingo alabeari izena eta arpegia ipini deusagu

Sano gauza politak gertatzen jakiera Mikel Etxabururen *Manttalingo alaba* emonaldietan kontau deusku Nerea Zuloaga ikuskizuneko kantariak.

Fikzinotik abiatuta, benetako Manttalingo alabearen barri izan dabe. Izan be, ikuskizunetara familiakoak hurreratu dira behin baino gehiagotan eta euretako batek gaztearen eskelea eroan eutsen.

Etxabururen poema liburuan oinarritutako ikuskizunak, Saturrarango kartzelan preso egondako andra eta umeak omentzen ditu. Mila persona inguruk ikusi dabe daborduko *Manttalingo alaba*.

Ikuskizunaren biraren gainean egin deusku berba Zuloagak, baita Marimailegu bere proiektuaren gainean. Izan be, jostea da Areatzakoaren beste pasino bat eta ezerezen truke, maileguan ixteko euskal erropa tradizionala josten dau. **8. eta 9. orrialdeak**



ARRATIA, ZEBERIO

Gabonetako jarduerak urteko lehen egunetan hainbat herritan

Programazioak hileen 5era arte segiduko dau eta antolatu diran kultura eta aisialdi ekintzek urteko lehenengo egunak hartuko dabez. Batez be umeentzako urtekerak eta ikuskizunak egongo dira. Erregenetako bezperan, kabalgatak egongo dira Areatzan, Bedian eta Igorren. **5. orrialdea**

ARANTZAZU/ARTEA/DIMA/ZEANURI

Aurrekontuak onartu ditue Arantzazu, Artea, Dima eta Zeanurin

Arantzazun aho batez onartu ditue; Artean, EAJ-PNVren aldeko botoakaz, EH Bilduk kontrako botoa emon eban; Diman, EH Bilduren aldeko botoakaz, EAJ-PNVk kontrako botoa emon eban eta Zeanurin EH Bilduren aldeko botoakaz, EAJ-PNV abstenidu egin zan. **5. eta 7. orrialdeak**

ARANTZAZU

Atutxa abizenaren inguruko liburua argitaratu dau Isaak Atutxak

Isaak Atutxa-Kaudalategi Etxebarriak *Atutxa behinolako etxebizen baten arrastoen bidetik* liburua kaleratu eban pasau dan hilean. Errasto horreen bila XIV. mendera arte egiten dau atzera Arantzazukoak, eta funtsezkotzat jotzen ditu Lemoan dagozan Atutxa eta Atutxola oinetxeak. Atutxa abizenaren inguruko ikerketa osoa hiru tomatan argitaratuko dau. Argitaratu dauan hau da lehenengoa.

Arantzazuren historiaren gaineko hiru liburu be baditu kalean Atutxak. **12. orrialdea**



eingo

 kultura eta tradiziozko hezkuntza

datorrenari aire!

 Sabino Arana 13
 IGORRE
 tel: 679 417 353

ZEURE BERBEA

Ez neban ezer ulertzen

Ez neban ulertzen zergaitik idatzi eben hori horma horretan. Nire amari kontau neutsanean, zer esan gura eban azaldu behar izan neutsan, nire amak euskeraz ez daki-ta. Ez arduratzeko esan eustan, horman idatzitakoa ez zala guri zuzendua. Baina nik badakit Marokotik etorri garanoi "moros" deitzean deuskuela.

Layla deitzean naz eta 11 urte daukadaz, oin Igorren bizi naz eta Institutuan ikasten nabil. Txikia nintzanean, Artean bizi nintzan, eta oso txikia nintzanean Marokon. Hiru urte neukazanean hasi nintzan Arteako eskolan. Gure etxeko balkoia plaza gainean egoan eta handik ikusten neban lagun bat plazan baegoan. Etxe horretan, jente asko bizi ginan, herrialde desbardinatetik etorritako jentea, gure moduan. Lagun asko egin genduzan

eta oindino Arteara goazenean eurakaz alkartzen naz.

Zapatuan, eskupelota partidu bat jokatzera joan ginan Lemoara, Amaia gaz eta bere aitagaz. Kottetik, herriko horma baten letra handiz idatzita "Moros kanpora lapurrak" irakurri neban. Ez neban ondo ulertzen... lapurrak ez jataz gustetan, gauzak kentzean deusuezalako. Ez neban ulertzen, diru asko lapurtzen dabenak ez ziran kartzela barruan egon beharko? Zergaitik idazten eben orduan kanpora lapurrak? Eta moros kanpora? Ez neban ulertzen... zer gura eben gu kanpoan egotea neguan? egiten dauan hotzagaz? Ez neban ezer ulertzen.

Layla ez da existiduten baina edonor izan eitekean.

Eskerrak, Lemoako horma, gainetik margotu dabenei.

Bilbon, 600 etorkin baino gehiagok kalean lo egiten dabe egunero.

JUAN TOTORIKA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LIX). Kale berbakunea sustatu guran

ESAKUNEAK

- Zelan esaten **zoan** lehen *del derecho y del reves*?
- Galderea txarto egin **dok**! Oindino holan esaten **dok** baina eskoletan **etxauriek** irakasten.
- Baina zelan **dok** orduan?
- Itzulietara eta eratara.
- A bai! Inoz entzun **joat** etxean, egia **dok**!!
- Umeei batua erakusten **jotsiek** eskolan eta benetako euskerearen nortasuna galtzean jabik.
- Eta hik zelan **dakizek** lehenagoko hainbeste berba?
- Jente nagusiagaz berba eginda, adi egon eta berbak apuntau, horixe **dok** sekretua.
- Hemendik aurrera egingo **joat**.
- Odolosteak galdarraztau egin **behozak**!!

ERETXIA

Urte barri, promesak ugari

Hemen gagoz, lurrak eguzkiari buelta osoa emon ostean, barriro be, urte hasikeran. Eta urte hasikera guztietan gertatzen dan lez, hemen gagoz, geure buruari "atalue" emoteko prest. Bai, bai, "atalue", ze bestela, zelan deituko geunskio urtero-urtero urte barriagaz geure buruari ipinten deusaguzan bete ezinezko helburu zerrendeari?

Eskua altzau dagiala, urtero, sasoi honetan, bere buruari urte barrirako helburu edo promesarik ipini ez deutsonak. Dan-danok eskuak behean.

Bai, irakurle, badakit zera pentsau dozuna: "nik ez, nik ez deusat ezer berezirik eskatu urte barriari". Ingurukoek bultzatuta, gure ez dauanak be, eta txikia izanda be, promesaren bategaz hasten dau urtea.

Dala argaldutea, kirol gehiago egitea, gehiago irakurtea, ingeleseko titulua lortzea, aurrezte, erreteari ixtea... Urte barrirako helburuen zerrendea luzea izaten da. Eta konturatu bazarrie, zerrenda hori osotzen daben "egitekoak", gehienetan, gizarteak ezarri deuskun zorion perfektuaren ikuspegiagaz erlazionatuta dagoz. Ardiak artaldean lez, hor goaz danok bardinera. Bestela, ikusi besterik ez dau Gabon jaiak pasauta, gimnasioak jentez zelan betetan diran.

Urtaileko aldatsgorea ez da bakarrik ekonomikoa, gimnasioetan be, makinatxo bat izerdi botaten dau jenteak. Bai, badakit, Gaboneko gehiegikeriak zelan edo halan kentzeako zeozer egin behar dala, baina, seguru nago, urte guztian kirola egiten dauanak, ez daukala urtailean gimnasia joan beharrik, eta Tourmaleta igoten egongo baliteke moduko sufrimentua pasetarik. Bizimoduak berez ez ete dauka ba sufrimentu nahikorik?

Adituek esaten dabenez, edozein aldaketagaz pasetan dan moduan, urte barriagaz be, parau



AINARA ARREGI

Kazetaria

eta erreflexionetea beharrezkoa ezezik, ona be bada, norbera non dagoan, eta nora heldu gura dauan barne-itaunduteko sasoi, baina urte barrirako ipinten doguzan helburuetan errealistak izan behar dogu, eta, zer egin geinkean, eta zer ez argi zehaztu. Oso garrantzitsua da, lortu gura dogun horren ibilbidea zein izango dan zehaztea, helburua lortu ezean frustraziorik egon ez daiten, eta, ibilbidean emon doguzan aurrerapausuak aintzat hartu. Ez dago zertan beti Tourmaletoko gailurrera ailegau, Pirinio inguruetako paraje ederrakaz gozatuta be nahikoa da.

Gimnasiokoa beti erabili izan dan eredu da, baina beste edozein promesetan be bardin egin beharko geunke. Erretzailea bazara adibidez, eta erreteari itxi gura badeutsazu, emon pausua, baina beti be, kontuan hartuta bidean emongo dozuzan pausuak. Ez zaitez ernegau urte barri honetan erreteari guztiz itxi ez badeutsazu, garrantzitsuena, pausuz pausu, erretan dozun zigarro kopurua gixitzea da. Beste horrenbeste, liburu gehiago irakurri gura badozuz, edota hainbeste urtean erabili ez dozun hizkuntza hori ikasi gura badozu. Ez egizuz derrepentean liburutegiko nobela baltzeko liburu danak irakurri. Disfrutau bideagaz, patxadaz irakurri, disfrutau, hausnartu...

Berez bizi gara arin, ezertarako asti barik, estresauta... Konturazterako, barriro be, lurrak eguzkiari buelta osoa emon deutso, eta Gabonetan egongo gara, eta, aurreko urteko erreterika bardinean segiduko dogu, barriro be geure buruari urte barrirako promesakaz "atalue" emoten. Gixienez, bidean bizi gaitez, disfrutau dagigun.



LUMATUTEN



RAFA UGALDE

Troiaiko zaldia

Joan dan zemendian artikulu bat argitaratu neban BERRIA egunkarian, *Hibridazio baten ordezkari* izenburuagaz. Kontua da 2022an suhiltzaileentzako oposizioa egin zala Arkautin, eta batzuek ahozko azterketea euskeraz egitea eskatu eban; eta arduradunek zer egin eban? Ba, galarazo egin eutsien euskeraz egitea. Horrek eragin eustan ziztadeari ezin eutsi, eta artikulu idatzi neban.

Han jasotako ideen artean batuten ziran oin dala mendeak hasita euskereak sufridu dituan debekuen banaka batzuk, danak be Espainiak edo Frantziak ezarrita; eta ez eskoiko alderdiek bakarrik, Bigarren Errepublikako gobernuak berak be galarazo egin eban-ta euskerea irakastea zentro publiko eta pribaduetan.

Ba, hara non, euskerea jagoten eta berreskuratuteko beharrea hasi garanean, Eusko Jaurlaritzek berak galarazo deutson euskaldun bateri azterketea euskeraz egitea. ELAk errekursoa

ipini ostean Eusko Jaurlaritzaren abogaduak Espainiako Konstituzinoa hartu ei eban oinarri, hartutako ebatzia defendiduteko; Espainiako Konstituzinoak berak euskereari ofizialtasuna aitortuten deutson lurraldean!

Ez zaitetz harritu, irakurle! Ondo leidu dozu! Espainiak ofizialtasuna aitortu, eta Eusko Jaurlaritzek euskeraz egitea galarazo!

Zer pasetan da? Eusko Jaurlaritzan gobernu hibridoak daukagula, alderdi bik osotua. Alderdietako bat euskalduna euskeraduna izanda be, beste alderdia ez bada euskalduna, komeriak daukaguz.

Azken baten, Troiaiko zaldia etxe barrura sartzean badozu, lehenago edo geroago Odiseo (Ulises) agertuko jatzu, "mila maltzurkeriena", Iliadan Homero deskribidu eban moduan. Eta oso modu legezkoan galarazoko deutsu euskeraz egitea, etxe barrutik galarazo be. Eta jakina, Eusko Jaurlaritzek historia egingo dau, Odiseok Iliadan egin eban moduan, eta ailegau da historian orri barri bat eskribiduteraino: atzeriko gobernuak hainbatetan egin euskua Eusko Jaurlaritzek berak egin dau, berea dan hizkuntzea erabiltea galarazo.

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Hau ez da nirea (II)

Baina Deabru gorria ez zen hitzordura azaldu, beste toki batean egongo zen, polizien arteko koordinazio mahai batean akaso. Beraz, Joxeri aukera bakarra geratzen zitzaion, Jaungoikoari erregua egitea alajaina, zeren, kasu hauetan Jaungoikoak Deabruak baino indar handiagoa izaten du. Putza berriro. Jainko ahalguztiduna ez zen etorri Joxeri laguntzera. Eta Joxek blokeatuta jarraitzen zuen. Gainera, hori gutxi balitz, idatzi nahi zuen ipuineko hitzak matxino zebiltzan batere gogoko ez zuen beste idazkian. -e- hizkiak errime, etsi gabe -ez zen esperokoa- eman zuen enegarren ezuztea alanbraden gainetik salto egitean. Et, et, et ziotsen segida deslai jarraitzen zuen -r- bikoitz bati. -Ez dut jarraituko Raxoi aldean, arrazoi duzu, hori da nire arropostua. -Horixe espero det. Erantzun zuen bigarren -e- entzutetsu batek. -Bai prefosta! Puta larru! Badatoz hitzak! Oihu egin zuen purrustada luze batean Joxek -p- hizkia gogor ahozkatuta. -Uii! Une batez -u- unatu bat usaintzera hurbildu zen. Hunkituta zirudien -u- unilaterala bazen ere. -Ba, ni bai babua batasun honetan, hobe Balutxistanera banao. Joxeren koordenan egin zuen balantzaka -b- batek. Ondoren -l- eta -i- hizkiak listo etorri ziren, listua irentsiz, beti lizun, beti listor baten eztenaz. -Kanbenzotz! Zoin duk kau? Non kausitzen nuk? Egin zuen erronkarietaz -k- batek. -Koordeno, barka... kaiera kautan, ukusten duken bikala. Kori Joxeren deklamia. A! esan zuen -a- hizkiak. -Baina, ipuin hau, alegia, ez da nirea izango. Agian da Atxag...-

-Bueno, berdin da, badago, ipuina listo dago, nahikoa da, orain isildu denok, Violanteri emango diot. Barkatu, presaz nabil, Gandesara joan behar dut eta. Gehitu zuen Joxek.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Bada lbargutxi izeneko leku bat, oin gure leihotxoko paisaia bihurtu dana, egunerokoa. Baserrira dogu, asko be Arratian! Baina aukeraketea da, etxe barri, epel eta eroso itxi eta zaharra, hotza, eta deserosoa hartu. Askatasuna da kontua, non sentiduten zaran aske. Baserrira erantzukizun handia da, garestia, erronkaz betea. Beharbada, horregaitik gaztaroko idealismoa islatzen dau bertara joateak, zahartzaroko pragmatismoa abandonetan dozunean.

Alvaro Rabelli



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beerredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Ikasgata Zerbaita 101
R.P.S. 31/06

ARRATIA, ZEBERIO

Gabonetako programazinoko jarduerak urteko lehen egunetan

Gabonetako programazinoak jarraituko dau urtailaren 5era arte eta udalek eta alkarteek antolatutako kultura eta aisialdi ekintzek urteko leheneneko egunak hartuko dabez.

Erredakzioa

Batez be oporretan dagozan umeentzako urtekerak eta ikuskizunak egongo dira. Erregenetako bezperan, urtailak 5, kabalgatak egongo dira Areatzan, Bedia eta Igorren.

Domekan, hilak 5, egongo dira jarduera gehien: Areatza, Bedia eta Igorren, Erregeen Kabalgatak egongo dira; Arantzazun, umeentzako parkea atonduko dabe frontoian eta dimoztarrak zaharren egoitzetara joango dira kantaldia eskaintzera bertan bizi diranei, eta Lemoan, gauean, Stainkeik jaia egongo da Karabie Gaztetxean.

Aurreko barikuan be ez da faltauko zer egin Arratiako herrietan. Igorren, umeen kirol kanpusaren azkenengo saioa egongo da eta iluntzean, Gabonetako kontzertua Areatzako Banda eta Luis Iruarizaga abesbatzaren eskutik, eta Zeberion umeentzako parkea ipiniko dabe. Zapatuan, barriz, herri urtekerak egingo dabe Arantzazuko Pozalaguako kobazuloetara eta Igorren Markeliñe konpainiak *Zepo Zapo* antzezlan eskainiko dau.

Arantzazu

Urtailak 3, barikua

18:00etan, jubiladuentzako bingoa eta txokolatea Kultur Gunean.

Urtailak 4, zapatua

Herri urtekera Pozalaguako kobazuloetara, ondoren Karrantzako jatetxe baten bazkaria. Udalak autobusa eta sarrerak ordaintzen ditu.

Urtailak 5, domekea

11:00etan, umeen jolas parkea

frontoian.

Areatza

Urtailak 5, domekea

18:00etan, Erregenetako Kabalgatea Karpon hasita (eguraldi txarra egin ezker, plazan).

Bedia

Urtailak 5, domekea

18:30ean, Erregeen Kabalgatea frontoian.

Dima

Urtailak 4, zapatua

10:00etatik 14:00etara, *Telazko poltsen tuneoa* tailerra. 12 urtetik gorakoentzat Zazparrak antolatuta.

Urtailak 5, domekea

16:00etan, Dimako egoitzetara kantari.

Igorre

Urtailak 2, eguna

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, GUP aterpean eta kiroldegian.

Urtailak 3, barikua

Gabonetako kirol kanpua. 19:30ean, *Aho bete doinu*, Areatzako Banda eta Luis Iruarizaga Abesbatzaren Gabonetako kontzertua Lasarte Aretan.

Urtailak 4, zapatua

18:00etan, Markeliñeren *Zepo Zapo* antzerkia Lasarte Aretan.

Urtailak 5, domekea

18:00etan, Erregenetako Kabalgatea. Ostean, Erregeak Kultur Etxean egongo dira umeen kartak jasoten.

Lemoa

Urtailak 2, eguna

19:00etan, Ruth Guimeraren *Euskal marketing* bakarriketea Karabie Gaztetxean.

Urtailak 5, domekea

23:00etan, Stankeik Karabie Gaztetxean.

Zeberio

Urtailak 3, barikua

11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Euskaltzaleen Topagunea, Taupa euskaltzaleen mugimendua da oin

Euskaltzaleen Topaguneak izena eta izana barrizatu ebazan igazko abenduan. Izan be, izen aldaketez gainera, Euskal Herriko euskaltzaleak saretu ditu, ez bakarrik alkarteak, euskalzaletasuna indartu eta zabaltzeko.

Erredakzioa

Topagune izatetik mobimentua izatera pasatzean, antolatutako modu barriei egin gura deutsee bidea, aktibismoaren gaur egungo joerak kontuan hartzeako.

Topaguneak euskera alkarteak batzean ebazan oin arte; tartean, Zertu Kultur Elkarte, eta euskera alkarteek jarraituko dabe izaten Tauparen muina, baina alkartean antolatuta ez dagozanek be, euskaltzaleen mobimentura batzeako aukera izango dabe. "Euskera alkarteen topagune izatetik euskaltzaleen mobimentu izatera igaro gara, eta herri batzuetan jardutetik Euskal Herri osoan antolatuzera" esan eban Jon Zapata Taupako aktibazino arduradunak. Parte hartzeako modu desbardinak eskainiko jakiez euskaltzaleei, taupamugimendua.eus webgu-

nearen bidez.

Sarearen erronka nagusia, aktibetako aukera barri eta barrizaleak proponidutea eta jenteari proposamenak egiteko aukera eta espazioak eskaintzea izango da. Proposamenak indibidualak izan leitekez, norberak bere ka-

buz eta danok aldi berean egiteko modukoak, ala kolektiboak, auzo edo herri mailan taldean antolatu beharrekoak. Daborduko abian diran ekintzak sustatzea izango da ekintzetako bat, eta aktibismoa digitala zein kaleko aktibismoa erabiliko ditue horretarako.



ZEANURI

Frontoiko obra aurten egitea aurreikusten dau Zeanuriko Udalak

Abenduaren 19an onartu ebazan Zeanurik 2025erako udal kontuak, EH Bilduren aldeko botoakaz eta EAJ-PNVren abstentzinoagaz.

Erredakzioa

Aurrekontuon arabera, 2.434.807,79 euro kudeatuko ditu Udalak. Mailegu bat eskatzea be aurreikusten da, gastu eta inbersinoei aurre egin ahal izateko.

Frontoia eroango dau aurrekontuetako zati handi bat. "Urte bitan egingo dogu. 2024ko aurrekontuetan 800.000 euroko diru partidea sartu genduan, eta 2025ekoan, 507.000koa. Prozesua aurrera doa eta lanak 2025ean egingo dira" azaldu deutso BEGURI Nahia Urrutxua Zeanuriko alkateak. Dirulaguntza bi izan arren, bata 300.000 eurokoa eta bestea 200.000koa, obrak milioitik gorako aurrekontua dauka eta 2025eko aurrekontuak baldintzatzen dituala dino alkateak.

"Nahiko obra inportantea da. 91 plaka fotovoltaiko ipiniko dira



energetikoki efiziente egiteko, tabernaren gainean terraza bat dago eta hor gimnasio bat egingo da, epazio zabala izango da. Eta igongailua azkenengo solairuraino, hau da, espazio barri horretaraino joango da irisgarritasuna

bermatuteko eraikin osoan".

Eskolako patiorakoa proiektuaren erredakzioa, eta auzunetako saneamentuak dira aurrekontu honeetako beste proiektu garrantzitsu batzuk. Baita bideen konponketak be.

"Gure erronka da herriko bideak. Zeanurik 50 km ditu herri bideak diranak. Aurrekontuetan 72.400 euroko diru partidea dago eta dirulaguntzak be eskatuko doguz".

Inbersino honek inportanteak dirala eretxita, inbersinoi eta gastuei aurre egiteko mailegu bat eskatzea aurreikusten da. Zenbatekoa, ez dago guztiz zehaztuta. 335.000 euro eskatutea aurreikusita bada be baleiteke gitxiago izatea "obra batzuk esleitu barik daukaguz eta batzuetan jatsi egiten dabe prezioa. Baleiteke mailegu txikiagoa eskatu behar izatea" dino alkateak.

ARTEA

Estadu mailako bitxigintza saria jaso dau Ilia Mitxelenak

Ilia Mitxelenaren *Velut umbra* lepokoa saritu dau

Fundacion Unicajak Bitxigintza eta Orfebreria kategorian.



Erredakzioa

Bitxiak, denporearen joana adierazoten dau, eta zidarra, beste metal batzuk eta erloju makineriakaz eginda dago. Sari banaketea Jaenen izan zan, abenduaren 19an. Lehiaketa hau urte birik behin egiten da.

Ez da Arteakoak jasoten dauan lehenengo saria. Aurtengoaz gainera, 2003an, Biarrea alkartearen Artisanu gazteentzako Villa de Bilbao Saria jaso eban; 2008an, Arabako Foru Aldundiaren Blas Arratibel Saria; 2010ean Bizkaiko Foru Aldundiaren IkasArt saria eta 2012an Sortzen alkarteak emondako ExprimenTarte Bilboko Artisautza Azokako saria.

Velut umbra da piezearen izena. Nondik dator?

Piezeak denporea sinbolizetan dau. Antxinako erloju askotan agertzen dan, *tempus fugit, sicut nubes, quasi naves, velut umbra* (denporeak hegan egiten dau, hodeiak, ontziak eta itzalak lez) esalditik aterata dago. Esaldi horrek Virgiliok Georgicaen "*Sed fugit interea fugit irreparabile tempus*" (Baina bitartean denporeak iges egiten dau erremedio barik) idatzitakoari egiten deutso erreferentzia, gero Itun Zaharreko Job-en Liburuko aipu batzukaz luzatu zana.

Zelan izan zan pieza horren sortze prozesua?

Arteako lagun batzukaz alkartu nintzan eta eurakaz egon ostean pieza egiten hasi nintzan. Euretako bat gaixorik egoan eta beragaz asko egin dot berba bizitzaren zentzuari buruz, eta bizitzaren gauza garrantzitsuen gainean. Laguna hil zan. Hausnarke-ta horretatik sortu zan *Velut umbra*. Lepoko bat da, kate formakoa; atzetik sartzean da eta parte bi ditu.

Batzuetan holango piezak egiten dodaz, saltzeako ez diranak; oso

gatxa da pieza handi bat saltzea, ez dalako egunero janzteko modukoa. Dana dala, inoz saldu dot holango bat, sari bat emon behar eutsielako eta sarituak gura ebalako zeozer ikusgarria.

Jaenera, saria jasotera ez zinan joan, ezta?

Ez. Jaen oso urrun dago eta konexioak ez dira bape be onak. Testu bat bialdu neutsen piezearen zentzua azalduz sari banaketan irakurteko.

Zure piezek istorio bat kontetan dabe beti edo ia beti. Zentzu bat daukie. Zeure ezaugarri bat da ala egungo bitxigintzako joera bat? Lehen bitxiak gehiago ziran estatus sinbolo bat edo diru inbersino bat, ezta?

Tailerraren arabera izaten da piezen atzean dagoana. Bai, lehen bai, urrezko bitxiak dirua gainean eroateko modu bat zan, baina ez dirutan. Baina baeukan bere zentzua, antxinako pieza batzuk be zentzu bategaz eginda dagoz: jaunartzekoa, ezkontzakoa... bizitzako momentu garrantzitsuetarako ziran.

Oin be, bitxiak egiten dodazanean, niretzako garrantzitsua dan momentu baterako izaten dira. Eta persona asko jatortaz holan. Niri piloa gustetan jata hori.

Artisautza baino gehiago artea dala esango neuke.

Nik arbasoakaz lotzean dot. Esate baterako, zeltek be zentzu bategaz egiten ebezan euren piezak. Ez ebezan egiten gorputza apaintzeko bakarrik, zentzu bat eukien. Nik horregaz konektetan dot eta asko gustetan jata bitxiak beste ezerk baino iraupen luzeagoa eukitea denporan. Zelten bitxiak be urreak daukan zentzu hori be baeukien. Zeramikazko edo beirazko harriak erabilten ziran txanpon moduan eta soinean be eroaten ebezan.

Nik zidarra landuten dot, zidarra ez da merkea baina ez da urrea langoa. **Platinelako katalogoko eta eguneroko lanak zelan egiten dozuz?**

Alde batetik daukat enkarguz egiten dodan lana. Sasoi baten ez neban bape be disfrutetan horregaz, burua topera neukalako, baina oin oso gustura nago horregaz: uste dot nire bidea dala hori. Eta bestetik, azoketan eta salduteko, kolekzioak egiten dodaz neure bizitzeagaz lotura daukienak. Ointxe, baserriko lanabesak eta musika tresnak dodaz inspirazino iturri.

ARTEA

Esti Martinezen *Animalia domestikoak* landuko dabe Arteako Irakurleen Txokoan

Erredakzioa

Saioa, urtailaren 10an, barikua, 19:00etan izango da. Esti Marti-

nez egileak aurkeztuko dau liburua eta Alaine Agirrek gidatuko dau saioa.

Animalia domestikoak (2023,



Esti Martinez.

Elkar) Martinezen lehen ipuin bildumea da. Bildumeak "leku hurbilak eta giro intimoak erakusten ditu, irakurleak erraz identifiketako modukoak, baina aldi berean esanezinenaren misterioa daukienak, inok zabalduten ez dauan ate baten ostean gordetzen dan horren antzera. Istorio eder eta sotilak, panpina-etxe baten moduan erreal bezain ametszkoak, sobrako berbarik bako idazkera fin, soil eta arin batez idatziak" dirala dinoe Elkar-ekoek.

Estibaliz Martinez Diaz de Ceriok (Iruñea, 1991), honetaz aparte *Azalberritze bat* (2018, Balea Zuria) poema liburua be argitaratuta dauka.

Baserrigintza

Eraiki daigun alkarregaz 2025 eder bat

Igorreko Industrialdea E2 - 48140 - IGORRE | 94 673 68 29 - 652 174 052
sun-eraketak@gmail.com | www.baserrigintza.com

ARTEA

Auzuneetako konponketetarako da 2025eko udal kontuetako partidarik garrantzitsuenetako bat

Abenduaren 23an onartu ebazan Arteak 2025eko aurrekontuak EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren kontrakoakaz. Guztira 1.465.034 euro kudeatuko ditu aurten Udalak, igaz baino %2,4 gehiago.

Erredakzioa

Inbersinoen aldetik, diru partidarik garrantzitsuenetakoak eroango dabez auzuneetako konponketek (60.000 euro) eta HAPOak. "HAPOa 2021ean hasi ginan. Denporaz ondo gabiz eta esan lei ondo bideratuta daukagu. Dana ondo badoa legealdi honetan amaitutea espero dogu" azaldu eutsan BEGITURI Alberto Intxaurreaga Arteako Alkateak.

Kulturarako diru gehiago egongo da 2025ean. "Igoera bat daukie. Kulturako diru partida guztiak igon dira %2 eta %5 bitartean. Eta igoerea aurrekontuen igoerea baino handiagoa izan da askotan" dino Intxaurreagak.

Ezusteetarako be gorde da diru partida bat.

EH Bilduk egindako emendekin batzuk hartzean dauzala aurrekontuak dino alkateak. "Gauza batzuetan ados egon gara eta horreek sartu doguz". Adostutako gauzen artean, Santa Mañe eta Santiagoko aisialdi guneak zerbitzuz hornidutako "lehenengo jaubetzagaz akordau eta gero landutako akordioa" lortu dabe; eskola inguruan komun

pubikoak ipiniko dirala adostu dabe; ikuspegi feministegaz bizikidetzeta plana martxan ipintea "landuko dala eta aurrekontuetan dagoala" dino alkateak. Arteko larrialdi emergentzia planari jagokonean, suhiltzaileakaz lanean dagozala mapa eguneratua landuten eta egokia ikusten dabela ura hartzeako puntuak seinaletea be badino, eta euskerarako diru partidea be handitzea adostu dabela, beste gauza batzuen artean.

EH Bilduk ezezko botoa

EH Bilduk ezezko botoa emon eutsan aurrekontuei. "Akordio zuzenik ez dogu lortu hainbat gauzatan: euskeran, saneamentuan, etxebizitzaren inguruko informazio tailerretan, eta abar. EAJk konpromisoa adierazo deusku, baina ez dabe diru partidarik zabaldu horretarako, egun dagozan diru partidak erabiliko dituela gure proposamenak aurrera eroteko esan dabe. Beraz, konpromisoa bai, baina programa zehatzik ez" dagoala dino EH Bildutik, 2025eko aurrekontuei emondako ezezko botoen zergaitia azaldutako.



ARANTZAZU

Gimnasiorako eraikina egiten aurten hastea aurreikusten dabe aurrekontuek

Erredakzioa

Abenduaren 26an onartu ziran Arantzazun 2025eko aurrekontuak aho batez. Guztira 833.528,4 euroko aurrekontua da. 200.000 euroko mailegua eskatzea be aurreikusten da.

Inbersino handiena eskatzen dauan proiektua, gimnasioa da. Frontoi inguruan egingo da fase bitan, 2025 eta 2026an zehar. Lehenengo fasean, 2025ekoan, eraikina egin eta barruko lokal bat prestatzea da asmoa. Horretarako, "dirulaguntza bat, aurreko urteko soberakina, diru propioa eta eskatuko dan kreditua" erabiliko da.

Bizkerreko bidea konpondutea eta udaletxe barruko lokalen aldatetak dira aurreikusten diran beste inbersino batzuk. Bizkerreko bidea "ondo egokitu behar da. Badaukagu 45.000 euroko diru

partida bat baina 60.000 euroko dirulaguntza jaso daikegu" azaldu deutso BEGITURI Asier Aburto Arantzazuko alkateak.

Udaletxe barruan hainbat aldateta egiteko diru partidea dago eta dirulaguntza be eskatuko da. "Udaletxe barruko egiturea margoztu eta egokitu behar da, altzari batzuk erosi eta bulego teknikoa

prestatu" dino alkateak. Izan be, udaletxean ez dago bulego teknikorik eta beharrezkoa da. Bulego teknikorako eta udaletxe barruko aldatetarako 13.000 euroko diru partidea dago.

Kultura eta jaietarako 2024ko diru partidak mantentidu dira. Kulturarako 12.000 euro dagoz eta jaietarako 30.000 euro.



DIMA

La milioi biko aurrekontua onartu dau Dimako Udalak aurtengorako

Dimako Udaleko ordezkari politikoak abenduaren 18an batu ziran plenoan, EH Bilduk proposatutako 1.956.126 euroko udal aurrekontua eztabaidatutako. EAJ-PNVko zinegotzien kontrako botoakaz, proposamenak aurrera egin eban.

Erredakzioa

2024ko aurrekontua baino 70.600 euro txikiagoa izango da aurtengoa. Desbardintasun negatiboa, aurreko urtean aurrekontuetarako 63.000 euroko dirulaguntzea jaso izateak -aurten jasoko ez dana- eta frontoiko eta inguruak urbanizetako lanetarako inbersinoen zati nagusia eginda izateak eragin dabe.

Halanda be, Dimako EH Bilduk defendidu dau ahalegin berezia egin dala "auzoetako jaiak eta kultur ekimenak sustatzeko". Beste alde batetik, ingurumen ekintzetarako partidea handitu da, "nahiz eta konziente garen ez dala gurako geunkean beste". Epe luzerako inbersinoak be egingo ditu aurten Dimako Udalak, tartean, "mataderoaren" erosketea aurten hasiko da eta gerora, eraikina kultur eskaintzarako prestatu gura da.

Esan moduan, ahalegin berezia egin dau kultur eskaintzea handituteko. Udalak 26.500 euro ipiniko ditu herriko kultur agendea susta-

tuteko baina beste partida batzuek be lagunduko dabe lan honetan: memoria historikorako 2.000 euro, ibilbide mitologikorako 2.000 euro, Dimestenen ekintzetarako (udalekuak, gaztelekua...) 52.500 euro, jaietarako 52.000 euro eta herriko alkarteentzako 35.000 euro, besteak beste. Euskera Plana be badago mahai gainean eta aurten 20.000 eurogaz lagunduko da hau, horrezaz gainera, 2.000 euro bideratuko dira euskerea ikasteko

dirulaguntzetarako.

Udalaren eskumenetik kanpo dagozan inbersinoak be egingo dira 2025ean Diman, izan be, URA Uraren Euskal Agentziak dirua ipiniko dau uholde eremuaren murrizketak egiteko ekintzetan. Frontoi alboko zubia ordezkatzeko espero da, bai eta Indusi zein Oba erreken zabalketea egitea. Arratiako nagusien egoitza eta eskola inguruan be egingo dira hobekuntzak errekan.



NEREA ZULOAGA

"Bide bat egiten gabiz 'Manttalingo alaba'gaz eta bidea egitean lurrak astintzen"

Musikea eta jostintzearen bitartez adierazoten dauz Nerea Zuloaga Areatzakoak bere kezak eta bere munduaren ikuskera solidario eta samurra. Mikel Etxabururen *Manttalingo alaba* liburuko poemak musikatu ebazan eta kantetan ditu. Frankismoan Saturrarango kartzelan preso egondako andra eta umeen omenez egindako ikuskizun hau mila persona inguruk ikusi dabe eta 2025 osorako hainbat eta 2026rako baten bat daukie programauta. Jostintzeari jagokonean, Marimailegu proiektua daroa aurrera. Euskal erropa tradizionalak josi eta maileguan ixten ditu ezerezen truke.

Erredakzioa

Manttalingo alaba ikuskizunera heldu arte, ibilbide luzea dozu kantagintzan. Zelan hasi zinan eta zein izan da ibilbide hori?

Nik kantetan dot baina beti esaten dot ez nazala kantaria, ez da nire lanbidea. Etxean beti kantau izan dot eta nire ahizteak be abesten dau.

Baina batez be unibersidade sasoiari nintzan kantetan. Nik *a capella* kantetan neban. Unibersidadean aldizkari bat geunkan eta aldizkariaren afari batera Txomin Artola etorri zan. Berbaz egon ginan eta abestu genduan eta nik abestu gura dot, pentsau neban. Txomin Artolak esan eustan berak eta Amaia Zubiriak kontzertu bat egingo ebela Igorren eta ea gura neban kontzertu horretako hasikerako kantaria izan. Eta nik baietz esan neban, jakin be egin barik zer egingo neban.

Sasoi haretan Mikel Urdangarin ezetu neban eta galdetu neutsan ea gura eban zeozer abestu *a capella*, banaukalako bolo bat. Holan hasi ginan eta 3 urte egin genduzan alkarregaz *a capella* kantetan. Hirugarren urtean ebatzi behar zan saltua emon ala ez. Berak oso argi eukan kantuaren munduan jarraitu gura ebela. Baina nik ez neukan argi zer egin, lanean ikastolan hasi nintzalako. Banandu ginan eta berak lortu dau abeslari izatea.

Nik ez, baina ez zan nire helburua. Nik beste bide bat hartu neban.

Gerora beti gauzatxoak egiten joan naz. Iratxe Andikoetxea lagunagaz abesti asko sortu dodaz argitaletxeetarako. Zubia Argitaletxeerako egin dogu lan pilo bat: euskerako liburuetak kantak, geuk sortu izan doguz. Andikoetxeak pianoa jotzen dau, eta bion artean sortzean genduzan kantak. Luzaroan izandako lana da, urte birik behin-edo, eta azkena oin dala urte bi egin genduan. Kantuak guk sortu eta Xabi Zabalak, Pirritx eta Porrotxen



kantak egiten dituanak musikali-zau ebazan.

Baina jente-aurrean be kantau dozu urte honeetan, Areatzako eleizan, barbarako urte amaierako kontzertuetan.

Bai. Herri mailako gauzetan beti sartzean naz eta aitak jotzen ebanez bandan, Areatzako Banda beti izan da etxeko gauza bat eta eskatu deusten guztietan kantau dot eurakaz.

Mikel Etxaburugaz, Manttalingo alaba egin aurretik, Ahaztu baino lehen, ama, hau be poesia errezitaldi eta kantaldia egin zenduan. Zelan hasi zinan harremanetan Etxaburugaz?

Unibersidadean ezetu genduan alkar eta lagun handiak egin ginan. Orduan hasi ginan lanak-eta trukatzan... Sorkuntzak beti alkar-tu izan gaitu. Gero urteak aurrera joan ahala, bakotzak bere bizitza egin dau, baina beti mantenidu dogu hartu-emona. Lagun-minak gara. Eta berak eskatu eustanean bere olerki horreek musikatzea, baietz esan neutsan, jakina!

Zeuk musikatu dozuz ikuski-

"Herri mailako gauzetan beti sartzean naz eta aitak jotzen ebanez bandan, Areatzako Banda beti izan da etxeko gauza bat eta eskatu deusten guztietan kantau dot eurakaz"

zun bi horreetako poemak?

Bai. Lan prozedura hauxe izan da: berak olerkiak ditu eta nik olerki horreekaz melodiak egiten ditut. Nik ez daukat musika hezkuntza handirik, baina belarri ona daukat eta melodiak asmatzeko erraztasuna. Orduan nik melodiak sortzean dodaz. *Ahaztu baino lehen, ama* ikuskizunean beste modu baten izan zan, baina *Manttalingo alaba* lanean nik melodiak sortu eta gero Irina Alvarezek biolinagaz eta Jon Gardokik akordeoiagaz, gorputza emon deutsee melodia horreei.

Mikel Etxaburu poemak irakurten, zeu kantuan eta musikari bi zagozie agerlekuan Saturrarango kartzelan egondako andren historia bat kontetan.

Oso gustura gagoz laurok. Esan deustudan moduan, Mikelek eta nik ezetuten dogu alkar unibersidadetik. Irina, Mikelen ikaslea izan zan. Mikel unibersidadean da irakasle eta Irina izan zan bere ikaslea. Irinak ezetuten eban Jon. Eta holan sortu zan taldea. Ez genduan alkar ezetuten, baina

oso talde ona lortu dugu, garrantzia emoten deustagulako gure artean ondo konpontzeari.

Eta zein izan da zure ibilbidea jostintzan?

Abeslaria ez nazala esaten dodan moduan, jostuna be ez nazala esaten dot. Niri beti gustau jataz eskulanak. Jostearena hasi zan aita eta ama hil ziranean. Oin dala bost urte hil ziran. Aita bagenkian gaixorik egoala eta denpora gitxira hilko zala, baina azkenean ama gaixotu zan eta hil egin zan aita baino lehenago. Oso traumatikoa izan zan. Hiru hilebeteren epean hil ziran biak. Orduan nik hor dolu luze bat egin neban eta doluetan bakotzak hartzean dau bere bidea. Batzuk hasten dira kirola egiten... Ni josten hasi nintzan. Hasi nintzan oso gitxi jakinda, makina erabilten justu-justuan.

Eta hasi nintzan josten modu oso konpulsiboan, ez pentsetako, eta konturatu orduko pilo bat erropa neukan. Eta hor sortu neban Marimailegu proiektua: gauzak ixten dodaz, alokairu moduan baina ezerezen truke. Niretzat jostea terapia bat izan da eta josteak niri emon deustana eskaini gura deustat jenteari.

Nire helburua ez da itzelezko jantziak egitea, itzelezkoak egingo banitu inok ez leukez jantziko eta. Ze egiten badozuz jantzi espektakularrak, nor joango da jaietara erropa horreekaz? Nik, santomasetarako eta jantziak eskatzera datozenei esaten deutset erabilteko bildur barik, trapuak dira. Ez dot askorik gastetan telak erosten eta saiatzen naz ahalik eta politenak egiten, baina ez dot ikasi gura, ez dodaz saldu gura, ez dodaz alokatu gura. Ez dot diru konturik gura.

Horrek guztiak, abeslari ez izateak eta jostuna ez izateak, askatasuna emoten deusta. Askatasun itzela, ze ez dot ezer galtzean.

Pilo bat erropa egin dozu. Jarraituko dozu baserritar edo euskal erropa tradizionala egiten?

Bai. Niretzako denporapasa oso ona da, burua horretan zentretan dodalako. Bost urte pasau dira eta ondo nago baina ez gara



inoz sendatzen. Horko hutsunea betirako daukazu eta hau neure burua zaintzeko modu bat da, terapia bat.

Oin gainera gauza desbardinak egiten nabil. Lagun batek ekarri eustazan umeen erropak, eta oin nabil jantzi horreek "tuneatzen" edo. Aldaketak egiten gaurko gustura egokitzeko.

Diseinuak zeuk egiten dozuz? Bai.

Ikastolan lana, joskintza eta Manttalingo alaba ikuskizunagaz jarraituten dozu, ezta? Bolo piloau daukazue.

Bai, piloau, eta oso pozik nago. Emonaldietara ez da jente askorik etorten, orokorrean. Areatzan bai, pasada bat izan zan, Saturraraneokan be bai, ezetuten gaituan jentea egon dalako. Gasteizen barriz, 12 persona egon ziran.

Baina ez da kopurua. Datozenak datoz jakinda zertara datozen

eta oso giro berezia sortzean da. Lehengo egunean Mikelek esan euskun, nik datu hau ez nekian, mila personek baino gehiagok ikusi dabela emonaldia. Eta oin-dino erdia be ez dogu egin.

Bolo pilo bat atera jaku Euskal Herri osoan, Iparraldean be Xiburrura goaz. Arratian, Zeanurin eta Lemoan egingo dogu emonaldia. Laudion, Donostian, Xiburun, Bilbon, Iruñean... Hondarribian be egon ginan, Eskoriatzan egin behar dogu... Pilo bat.

2025eko urte osoa honetan emongo dogu eta 2026rako be badaukagu emonaldiren bat.

Jentea hunkitu egiten da emonaldian...

Sano gauza politak gertatzen jakuz. Konturatu gara hau ez dala kontzertu edo antzerki lan bat itxia, beti bardin egiten dozuna. Pilo bat gauza gertatzen jakuz bidean.

Adibidez, Saturraranen egon ginanean, amaitu genduanean, Manttalingo alabaren familiako bat joan zan Mikelengana, esatera bere amamaren ahiztea zala Manttalingo alaba hori. Harrituta geratu ginan, ze Mikelek hartu eban Manttalingo alaba erreferentzia bat legez, Saturrarango umeakaz lotzeako.

Eta proiektu hau kontau nebanean nire kuadrillan, kuadrilako batek esan eustan "nire izekoa egon zan han, kartzelan. Amama egoan preso eta izekoa atera eban kartzelatik sei hilebete zituala". Bakarne Meabe zan, Areatzako emonaldian omendu genduana. Saturrarango kartzelan antza, baegoan moja on bat, eta horrerri esker, izaretan eta erropa zikinetan bilduta Bakarne eta beste umetxo bat atera ebezan. Ondarroako familia bategaz ados ipinita.

Gasteizeko emonaldira be edadeko 5 andra etorri ziran. Eszenalekuan argazki handi bat ipinten dogu, kartzelan egondako andrena eta andrazko hareetako baten amama egoan argazkian. Negarretan egon zan emonaldi osoan.

Hondarribian, mutil bat etorri jakun; ha be Manttalingo familiakoa. Mikelegaz egon zan eta esan eutsan datu bat ez daukagula ondo; Manttalingo alaba ez zala hil umea zanean, 21 urte eukazala hil zala. Eskelea ekarri euskun eta Manttalingo alabearen historia benetakoa jakin eta izena eta arpegia ipini ahal izan

deutsagu. Maria Eugenia Salaberria Izagirre zan bere izena. 21 urte eukazanean, bera, bere ahizta eta euren nobioak kotxean joiazan bazkaloste baten jaiak ziralako ondoko herrian, eta tiro bat entzun zan. Tiro horrek hil eban Manttalingo alaba. Hori da benetako historia.

Historia latz horren atzean personak egon zirala erakusten da.

Gure balorazioa da emonaldi guzti honeekaz bide bat egiten gabizala eta bidea egitean, lurra astintzen goazala. Aldatzen doa. Oin konturatu gara, gure umetxo hori, Manttalingo alaba hori, ez zala umea zanean hil. Guk ez dogu hori aldatuko fikziotik gabizalako, baina harrigarria da topatzen gabizen gauzak.

Benetako gertaeretan oinarritutako fikzioa da.

Bai, aikomen emonaldian esaten doguzan datu batzuk: Saturraranen 1938tik 1944ra, 4.000tik gora emakume egon ziran preso; 116 andra hil ziran bertan eta 54 ume. Zenbat ume lapurtu ebezan ez dakigu.

Kartzela egoan 3 departamentutan bananduta: andra zaharrak, gazteak eta amak. Eta amek euki eikien umea, umeak 3 urte izan arte. Ez dakigu zenbat ume galdu diran, ze hilda jaiio zala esaten eutseen amei eta umea adopzioan emoten eban. Oso gogorra da. Oso historia gogorra da, me-rezidu dau kontaktzea.

"Emonaldietara datozenak zertara datozen jakinda datoz eta oso giro berezia sortzean da. Lehengo egunean Mikelek esan euskun mila personek baino gehiagok ikusi dabela emonaldia"



Jon Gardoki eta Irina Alvarez goian eta Nerea Zuloaga eta Mikel Etxaburu behean.

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Blaitza deya jakitzu *Bidua deya proiektu*

- Solentan zein aldatu
- Lurrak (jarkitza, landa, baso...)
- Etebideak (jarkitza, baso, errek...)
- Garajeak
- Lokal komertzialak
- Pabiloiak...
- Balonazkoak

Irakin berak erakitzeko
Inelomak
AKTibitate-proiektuak

- Borne diseinua
- CEE eta IIE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratia
INMOBILIARIA

Loharikoa: Agre 25, bilboa - Ipirra
Bilbo: 94 621 21 29 - 425 14 35 35
Bilbo: 94 621 21 29 - 425 14 35 35
Bilbo: 94 621 21 29 - 425 14 35 35

Kili~Kili
Amor eta Puzkizua
Lehendakari Agre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 673 43 81

Olaetxe
OPTIKA TERAPIA

- Graduazinoak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gaitua
- Begiko tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel.: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

MENDIA



Izen-emotea zabalik dago maiatzaren 31n izango dan Ubide Troi Trailerako

Erredakzioa

Maiatzaren 1era arte edo doralak amaitu arte emon daiteke izena *kronoak.com* webgunean Ubide Troi Trail 2025eko lasterketaren baten parte hartzeako. Bi lasterketa egongo dira; 28 kilometrokoa, 2.000 metro desnibelduna; eta 22 kilometrokoa, 1.200 metro desnibelduna. 28 kilometroko lasterketan izen-emotea 30 euro dira eta 22 ki-

lometrokoa, 25 euro. Guztira 300 dorsal bananduko dira. Lasterkariak Ubideko plazatik urten go dira; 09:00etan abiatuko da 28 kilometroko lasterketa eta 10:00etan 22 kilometrokoa.

Ubide Troi umeentzako lasterketa be egongo da, baina horretarako egunean bertan Ubide emon beharko da izena.

Parte-hartzaileek kamiseta bat hartuko dabe eta taloa jan ahal izango dabe lasterketa amaieran.

AZKOREA

Aitzol Atutxak Bizkaiko Binakako Aizkora Txapelketea irabazi eban eta Xabier Gartzia "Utxu"-k bigarren mailakoa

Erredakzioa

Abenduaren 21ean, Santo Tomas eguna, Bilbon jokatu zan Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federakundeak antolatutako Bizkaiko Binakako Aizkora Txapelketea. Lehenengo eta bigarren mailako txapelketak egin ziran eta kasu bietan, txapeletako bat dimoztarrak eroan eban. Aitzol Atutxak Julen Larreagaz irabazi eban lehenengo mailan eta bigarren mailan, Xabier Gartzia "Utxu" eta Beñat Lekue nagusitu ziran.

Lehen mailako txapelketako azkolariek, 54" eta 60"-ko seinan enbor ebagi behar izan ebezan. Atutxak eta Larreak 22 minutu eta

52 segundo behar izan ebezan. Atzetik geratu ziran Hodei Ezpeleta eta loritz Gisasola bikotea, 23 minutu eta 29 segundo eginda; David Naredok eta Aritz Irazabalek egin eban hirugarren 25 minutu eta 50 segundoko denporeagaz.

Bigarren mailako txapelketako azkolariek, 54" eta 60"-ko hiruna enbor ebagi behar izan ebezan. Xabier Gartzia "Utxu" eta Beñat Lekue nagusitu ziran 17 minutu eta 42 segundoko denporeagaz. Bigarren postua Marco Nevado eta Borja Fernandez bikoteak eroan eban, 19 minutu eta 02 segundo eginda, eta hirugarrena, Mikel Agirre eta Daniel Lopezek 19 minutu eta 26 segundoko denporeagaz.

FUTBOLA

2024a amaitzeko jardunaldi eskasa

Ez zan bape be ona izan 2024ko atzen jardunaldia Arratiako futbol taldeentzat, gizonzkoen Arratia Bk baino ez eban irabaztea lortu eta. Lemoako Harrobik bardindu egin eban etxean, eta gizonzkoen Arratia Ak etxean eta andrazkoen Arratia Bk etxetik kanpo galdu egin ebezan euren partiduak. Andrazkoen Arratia A taldeak atsedena dauka hilaren 11-12ko astegienera arte, orduan Berriozar talde nafarraren kontra jokatuko dau etxetik kanpo.



Erredakzioa

Gizonzkoen Arratia A taldeak abenduaren 20ko gauean jokatu eban 2024ko atzen partidua Urbietan Galea A taldearen kontra eta 1-2 galdu eban. Partiduko 18. minutuan aurreratu ziran arratiarrak Edorta Ormazabal billaroztarraren gol batez baina lehen zatia amaitu orduko kanpotarrak 1-2 ipini ziran. Bigarren zatian ez zan markagailua mobidu. 14 jardunaldiren ostean 25 puntu ditu Arratia Ak eta goera postuetatik kanpo dago, bosgarren postuan. Datorren partidua urtailaren 5ean jokatuko

dau etxetik kanpo bere aurretik dagoan Gernika Sporting A taldearen kontra, goizeko 11:00etan.

Gizonzkoen Arratia B taldeak abenduaren 21eko arrastian jokatu eban Urbietan Ermua A taldearen kontra eta 3-1 irabazi eban. Lehen zatiko gol biak Jokin Goti zeanuriztarrak eta Ibon Agirretxe arteztarrak sartu ebezan eta bigarren zatiko gola Iker Olibares zeanuriztarrak sartu eban. 14 jardunaldiren ostean 20 puntu ditu Arratia Bk eta bederatzigarren postuan dago. Datorren partidua urtailaren 4an jokatuko dau etxetik kanpo Montefuerte A taldearen kontra, arrastiko 16:15ean.

Andrazkoen Arratia B taldeak abenduaren 21eko eguerdian jokatu eban Larrabetzun Uritarra taldearen kontra eta 3-1 galdu eban. Etxekoak 2-0 aurreratu ziran lehen zatian eta bigarren zatian hasi eta lehen minutuan Alaitz Zelestino dimoztarrak sartutako golak 2 eta 1ekoa ipini eban arren, 3-1 galdu eban Igorreko taldeak. Hamaika jardunaldiren ostean 18 puntu ditu Arratia Bk eta bosgarren postuan dago. Datorren partidua urtailaren 5ean jokatuko dau etxetik kanpo Ariz taldearen kontra, arrastiko 18:00etan.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobi taldeak abenduaren 20ko gauean jokatu eban 2024ko atzen partidua Montefuerte A taldearen kontra Arlonagusian eta bana bardindu eban. Kanpokoak hartu eban aurrea baina 26. minutuan Xanti Kortak sartutako golak partidua bardindu eban. 14 jardunaldiren ostean 14 puntu ditu Lemoako taldeak eta hamalagarren postuan dago. Datorren partidua urtailaren 4an jokatuko dau etxetik kanpo Orozkoko Atxulaur A taldearen kontra, arrastiko 19:00etan.

MENDIA

Mendian federatzeko sasoi da

Erredakzioa

Urte osoan zehar federatu daitezkeen arren, urte hasikerea da federatzearen bentajak aprobeztetako sasoirik onena, eta mendi taldeek, kanpainak abiatzen ditue euren bazkideak federatu eta bazkide barriak egiteko. Horretarako, formularioa online heldu arazoten deuse klubek bazkideei.

Arantzazuko Arginatx Mendi Taldean, Areatzako Lamino Kirol Klubean, Bediakoek Ganguren Mendi Taldean, Lemoako Ganzabal Mendi Taldean eta Zeanuriko Joko Alai eta Suzien Mendi Klubean izena emon daiteke federatzeko. Taldeetako bazkide izan ezean, lehenengotik bazkide egin behar da eta urteko kuota

ordaindu, eta gero federatzeko formularioa bete behar da. Formularioa beteta dagoanean mendi taldeek federetan dabez bazkideak mendi talde moduan.

Online egiteaz aparte, Ganzabal Mendi Taldeak lokalean tramitetako aukerea be emoten deuse bazkideei. Horretarako, mezu bat bialdu behar dabe txandafederatuganzabal@gmail.com helbidera, eta adierazo hitzordua hartu gura dabela.

Bazkide ez diranek eta bazkide egin eta federatu gura dabenek mendi taldeakaz ipini behar dira kontaktuan, hurrengo helbideetan: arginatxme@gmail.com (Arginatx); 646 355 550 telefonoa (Lamino Kirol Kluba), gangurenmt@gmail.com (Ganguren); ganzabalmnt@gmail.com (Ganzabal), jokoalai@gmail.com (Joko Alai) eta gorbeiasuzien@gmail.com (Suzien Mendi Kluba)

ganzabalmnt.org (Ganzabal), jokoalai@gmail.com (Joko Alai) eta gorbeiasuzien@gmail.com (Suzien Mendi Kluba)

Mendian federatzea

Federazinoko lizentziak urtailaren 1etik abenduaren 31ra arteko indarraldia eukiten dabe eta horregaitik da interesantea urtailaren egitea. Mendira sarri joaten diranak federatzen dira; izan be, federatzeak istripu aseguruak dakar, eta beste mendizale batzukaz batera eginda, beste edozein aseguru baino merkeagoa izaten da. Gainera mendi talde baten egoteak, taldeak antolatutako urtekeretan parte hartzea eta mendira bakarrik ez joatea ahalbidetzen dau.

ZIKLO-KROSA

Manu Quintanillak Euskadiko eta Bizkaiko Ziklo-kros Txapelketak irabazi ditu

Bizkaiko Ziklo-kros Txapelketea Gorlizen jokatu zan abenduaren 21ean eta Euskadikoa Aiaran 29an. Txapelketa biak irabazi ebazan Igorreko txirrindulariak Master50 kategorian.

Erredakzioa

Manu Quintanillak irabazi eban abenduaren 29an Ibaguenen (Aia) jokatu zan Euskadiko Ziklo-kros Txapelketea, bigarren egin eban Bediako Iñaki Paradak eta laugarren postua Dimako Juan Lazpitak eskuratu eban. Igorrekoak 38 minutu eta 21 segundotan amaitu eban proba, Bediakoak 15 segundo gehiago behar izan ebazan eta Dimakoak 39 minutu eta 16 segundoko denporea egin eban.

Bizkaiko Txapelketea

Manu Quintanillak egin eban lehenengo, Iñaki Paradak bigarren eta Juan Lazpitak hirugarren. Parada izan da lehena Bizkaiko CX Kopako sailkapen orokorrean eta Quintanilla bigarrena.

Bizkaiko Koparen atzen proban, Bizkaiko Txapelketea izan

zana, arratiarrek protagonismo berezia hartu eban, Master50 kategoriako podiuma betez eta sailkapen orokorreko lehenengo postuak lortuz. Amaitutzat emon dan 2024ko Bizkaiko Ziklo-kros Kopan, Iñaki Parada bediazarra izan da lehena sailkapen orokorrean eta Manu Quintanilla igorrezarra, bigarrena.

Gorlizeko lasterketea, Igorreko lasterketea baino egoera hobean jokatu zan, euriak atsedean eguna emon ebalako, baina aurreko egunetik pilatutako lupetzak markau eban proba. Ha-ta guzti be, arratiarrek ezin hobeto egin eutsien aurre probeari. Manu Quintanilla igorrezarrak 46 minutu eta 53 segundotan amaitu eban proba; Iñaki Parada bediazarrak 47:06ko denporea behar izan eban proba amaituteko eta Juan Lazpita dimozarrak, 48:28koa.



Iñaki Parada, Manu Quintanilla eta Juan Lazpita.

PELOTEA

Hainbat dominagaz etorri ziran etxera arratiarrak txapelketa bitatik



Lur Ziarrusta, Aitor Asua, Jokin Burgete eta Mikel Beldarrain.

Erredakzioa

Abenduko lehen astegienean jokatu zan Tolosan (Frantzia) Frantziako OneWall Opena eta Rebotean OneWall Klubeko (ROWK)

arratiarrak osotu eban euskal delegazioa txapelketa eta danek lortu eban dominaren bat. Gainera, banakako zein binakako urre zein zidarrak ekarri ebazan.

Banakako txapelketa, Ziarrusta

II.ak irabazi eban urrea eta Mikel Beldarrain artezarrak zidarra. Open kategorian, C mailako txapelketa be egon zan Arratia podiumean, Asua II.ak brontzea eskuratu eban-ta. Binaka barriz, Open kategorian Beldarrain eta Burgete izan ziran irabazle nagusiak eta bigarren postuan geratu ziran Ziarrusta II eta Asua II.

Lekeition be txapeldun

Abenduaren 14an osteria Euskadiko Euskal Pilota Federakuntzeak antolatutako Euskal Herriko OneWall Txapelketea jokatu zan Lekeition. Gizonezko zein andrazkoen txapelketak egon ziran jokoan eta gizonezkoetan, arratiarrak nagusitu ziran lehenengo postu bietan. Urrea Mikel Beldarrain eta Kimetz Zapikorentzako izan zan eta zidarra, Jokin Burgete eta Lur Ziarrustarentzako.

MENDIA

Alex Txikon alpinistea Katmanduko ospitale batean operau eban

Erredakzioa

Hasikera baten peritonitis zala pentsetan baebe be Txikonek apendizitisa izan dau eta altueran larrialdiko ebakuzinoa jaso ostean, Katmandun ebakuntza egin eutsien alpinista lemoaztarrari. "Manel de la Mattari K2an gertatu ez bezala, dana ondo aterada. Oin, indarbarritu eta hurrengo urratsak balorau behar dira. Informatzen joango gara" adierazo eban sareetan. Manel de la Matta alpinista katalana 2004an hil zan K2aren lehen kanpamentuan peritonitisaren ondorioz.

Txikonen taldeak sare sozialetan argitu ebanez, ebakuntza ondo

joan zan eta lemoaztara badabil astiro errekuperetan.

Annapumari (8.091 m) ekin aurretik, aklimatizazio moduan, Ama Dablam (6.812 m) eskaletan ibili zan Txikon aurreko asteetan.

Abenduaren 14an jakitera emon ebanaren arabera, Ama Dablam-eko C1, alturako lehenengo kanpamentuan, sei egun eta bost gau pasau eta gero, C2ra, bigarrenean heldu zan Txikon.



Gure ikastetxeak Euskalduna kalidazko herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza
Lehen Hezwuntza
Dorrigorrezko Digarren Hezwuntza
Datxilergoan
Hezwuntza Zinloan
2 urtokia 13ra

LIBURUA

Atutxa abizenaren inguruko ikerketan oinarritutako liburua argitaratu dau Isaak Atutxak

Isaak Atutxa-Kaudalategi Etxebarriak *Atucha behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik* liburua kaleratu eban abenduan.

Erredakzioa

Errasto horreen bila XIV. mendera arte egiten dau atzera, eta funtsezkotzat jotzen ditu Lemoan (Bediako merindadea) dagozan Atucha eta Atuchola oinetxeak. Atutxa abizenaren inguruko ikerketa osoa hiru tomotan argitaratuko dau. Hau da lehenengoa.

Atutxa-Kaudalategi Arantzazun jaio zan eta Arantzazuren historiaren gaineko hiru liburu be badiu kalean *Arantzazu: zaharra orainaldi* (1996); *Arantzazu non-zer-nor I Historia baterako materialak: Albitzu-Argiñao-Zalbide* (2017) eta *Arantzazu non-zer-nor II Historia baterako materialak: Udallerria* (2022).

Zein da zure abizena, Atutxa ala Atutxa-Kaudalategi?

Abizen ofiziala Atutxa da. Baina atutxatarrei buruzko kontuak hazi nintzanean, Atutxa horri Kaudalategi gehitzea ebatzi neban.

Oin dala sei bat urte, ETB hasi zan Todos los apellidos vascos emoten eta lehenengo kapitulua Juan Mari Atutxari buruzkoa izan zan. Han agertzen zan nire lehengusu bat esaten, bere etxea, Iturriotz, zala atutxatarren sortetxea-edo. Atutxa guztiok handik sortuak ginala. Oban, Iturriotzen aldamenen dagoan etxea Kaudalategi da. Eta nire gurasoak eta nire aitita-amamak, nire arbasoak hor Kaudalategin jaioak dira. Orduan eta Kaudalategi horren errebindikazio moduan edo, ebatzi neban Kaudalategi gehitzea arbasoen omenez.

Marrazkiak, argazki zaharrak... sano edizino polita da.

Diseinua oso ondo jagonda dago eta liburuan ikaragarriko informazioa dago. Beharbada irakurle arrunt batentzat astuna izan daiteke, baina ikerlariarentzat material oso baliagarria bilduten da hemen. Historiako lar ezagunak ez diran XIV., XV., eta XVI. mendeko Historia dago hemen. Nire lagun batzuk diru-bilketea eginda, atera dogu edizino hau. Oso edizino laburra da 125 ale baino ez, artxiboetan eta liburutegietan liburuaren ale bat ixteko. Arratiako liburutegi guztietan dago ale bat, eta Bilboko artxibo nagusietan eta liburutegietan be bai. Gainontzekoak, lagun artean banandu dodaz. Udaletxeen batek beste edizinoen bat egitea gustauko litxakit; Lemoak, esta baterako Lemoa aztertzen da



batez be liburuan eta.

Dialnet-en be sartu neban eta beraz PDFa interneten dago eskuragarri. Eta nire webgunean be badago PDFa.

Abizenaren errasto zaharrena Bediako merindadean topau dozu?

Erdi Aroan Bizkaia merindadeetan bananduta egoan. Horreetako bat zan Bediako merindadea eta aldamenekoa Arratiako merindadea, baina Bedia eta Arratia bananduta egozan. Bediako merindadea Lemoa zan. Lemoa udallerria zan; Bedia, barriz, ez zan udallerria, kolazino bat baino eta Bediako biztanle asko Bilboko erroldan sartzean ziran.

Bediako merindadean, hau da Lemoan, etxe garrantzitsu bi dagoz Atucha eta Atuchola.

Kaudalategi ez zan izan sorre-rea, orduan?

Atutxatarrak Kaudalategira 1742an heldu ziran. Eta nik ikusten neban atutxatarrei buruzko historia bat 1742an hastea nahiko Historia urria edo pobrea zala. Eta XIII., XIV., XV., eta XVI. mendeetako atutxatarren bila hasi nintzan eta horreek dira liburu honetan dagozanak.

Bilbo eta Lemoan (Bediako merindade zaharrea) kokatzen dira batez be. Bilbon aurkitu dodaz batzuk baina nik uste dot inportanteena XIV. mendeko Atutxa bat dala, hori Lemoako patroia dala esaten da. Eta nik uste dot horren inguruan sortu zala Atucha edo Atuchola etxea, atutxatarren historia. Liburuetan azaltzen dan Historia behintzat.

Atucha edo Atuchola zein izan zan lehena ezin deusut esan. Atuchola da azken baten Atucha + ola. Kontua da, Atucholan baegoala ola bat, errotak egozan, torretxe bat... Orduko jauntxoek eukiten ebena. Eleiza Elorriagakoa izan daiteke

baina ez dakit.

Nire ustez atutxatarren sortetxea hori izan daiteke. Behintzat sortetxeetako bat.

Eta Kaudalategira 1742an joan ziran, ezta?

Dimako arazorik handiena Historia ikertzen dabenentzat oso informazio giti dagoala da. Eleizea hirulau bider erre zan nik ikertzen dodan sasioan eta sasoi haretan agiri gehienak eleizetan gordeten ziran. Gehienak galdu dira.

Liburu honen azken kapituluan, Martin de Atucha izeneko bat dago. Historian agertzen dan baten birbiloba bat da Martin Ignacio de Atucharena. Berraitita hori Lemoako da baina Diman agertzen da Akesolo eta Emaldiko etxe batzuen jaube moduan. Eta gero XVI. mendean, Diman, Atutxa Goikoan, Martin de Atucha bat dagoala topau dot. Hau da, Martin de Atucha horren inguruan familia bat sortu da. Eta Martin de Atucha horrek sorrerea Lemoan dauka baina Diman dago kokatuta. Nire susmoa da, atutxatarrak Dimara heldu ziralako Lemoatik.

Gaur be Diman badago Atutxa izeneko auzo bat eta lehen baegozan Atutxa Goikoa eta Atutxa Behekoa. Goikoako baserria botata dago, eraitsita dago. Liburu honetan azaltzen dana da aurkitu dodan lehenengo Atutxak Bilbon eta Bediako merindadean, Lemoan, Atucha eta Atuchola etxeetakoak ziran. Gero, Lemoatik Dimara, Atuchara joatea posible da. Argi dago, Diman, atutxatarren lehen kokagunea Atutxa dala. Atutxa Goikoa eta Atutxa Behekoa. Geroago joan ziran Iturriotz eta Kaudalategira, baina hori bigarren tomorako materiala da. Mende horretan be bai, XVIII. mendean, Igorre, Zeanuri eta Arratian zehar banandu ziran.

Esan dozu badaukazula materiala beste bigarren liburu bat egiteko, ezta?

Nire asmoa zan lehen tomo honetan eta bigarren tomoan azalduko diran materialak tomo baten azaltzea. Kontua da ikertzen ari zaren egun baktxean, egunero-egunero zeozer barria topatzen dozula. Orduan nik baneukan tomo bat prestatuta baina honen bikotxa edo izango zana, Dimara heldu arte heltzean zana.

Badagoz artxibo batzuk nahiko garrantzitsuak diranak, Arriola-Urretxatarrenak, horreek artxibo pribaduak izan dira eta dohaintza bat egin eutsien Euskadiko Artxibo Historikoari. Artxibo Historikora jo neban oin dala urte bi eta piku eta esan eusten material hori guztia digitalizetan egozala eta ezin zala kontultau. Urte pare bat beharko ebezala digitalizetako.

Bitartean, hau eta bigarren tomo prest neukazala, digitalizauta egozala jakin neban, eta orduan sartu nintzan artxiboetan. Material barri asko topau neban eta material garrantzitsua, gainera. Orduan ebatzi neban, hau konpleto, guztiz-guztiz aztertuta neukana eta argitaratzeko moduan egoanagaz atearate lehen tomoa, eta topautako materiala bigarrenen.

Hirugarren tomoan, Kaudalategi eta azalduko dira zuzen-zuzenean.

Hiru tomoetako materiala ia-ia prestatuta daukat etxean. Bigarren tomoa urtebete edo urtebete eta erdi barru atera gura neuke eta hirugarrena ez dakit urte bi edo hiru urte barru.

Ikerketa prozesuan zenbat urte egin dozuz?

Asko. Aterata neukan Arantzazuri buruzko bigarren liburu, 2017an eta gero azaldu zan telebistan esan deusudan Juan Mari Atutxari buruzko kapitulu hori. Orduan hasi nintzan buru-belarri atutxatarrak. 2018an hasi nintzala uste dot, sei bat urte emon dodaz ikertzen, eta jarraituten dot jakina.

Askotan prozesua luzatu egiten da. Esate baterako, artxibo bat eskuratzeko urte bi behar izan neban. Ekonomia liburuaren baten irakurrita neukan Atuchola etxe bat enkantera atera zala burdin kintal batzuk zirala eta ez zirala, eta artxibo horren atzetik hasi nintzan. Artxibo garrantzitsu gehienak Valladolideko Kantzeilaritzan dagoz. Valladolideko Kantzeilaritza da gaur egun Auzitegi Gorena dana.

Hemengo pleito gehienak, behintzat instantzia horretara heltzean ziranak Valladoliden dagoz.

Eskatu neban kontu honeri egokion artxibo eta esaten eustien hori oso zaharkitua egoala eta ezin zala kontultau. Baina nik noizbehinka barriro eskatzen neban. Eta erantzuna beti izaten zan bardina. Baina halako baten, telefonoz deitu eustan Valladolideko Kantzeilaritzako Artxibo arduradunak eta esan eustan artxibo barriztau eta kontultetako moduan egoanean deituko eustala barriro. Eta deitu eustien. Urtebetegarranean, barriztuta egoan eta kontultau ahal izan neban. Hau da, bakarrik artxibo hori eskuratzeko urte bi pasau ziran.

Aitatzekoa be bada Atuchola bilatzen nengoala gertatutakoa. Atuchola buruzko informazioa bilatzean ez neban ezer topatzen. Orduan bururatu jatan, Atucholako jaubeak garai baten usunsoloztarrak izan diranez, bilaketea Usunsolo bidez egitea. Eta artxibo guztien artean agertu zan bat esaten ebana, "pleito entre los hijos de Sancho de Usunsolo por la casería de Aruchola". Hau da, informazioa sartu ebanak Atuchola sartu beharrean Aruchola sartu eban. Oso erreza zan orduan testu idatzietan r eta t nahastea, ze oso antzekoak ziran. Eta artxibo horri esker, burutu dot historia honetako tarte oso garrantzitsu bat.

Askotan oso astun izaten dira artxiboen irakurketak. Esate baterako hirugarren tomoko Atutxa-Kaudalategi horretan... Ikusten dot garai baten Atucha Goicoan, Diman Atutxa abizenetik Ortuondo abizenera pasetan dirala; hau da Atutxa galtzean dala. Eta ez neban aurkitzen konexioa, jaubea Atutxa izatetik Ortuondo izatera pasakeran. Baina topau neban artxibo bat, liburu bat da, ia 700 orrialdekoa. Irakurri neban hasikeratik, amaierararte, han, baegoalako hizketaldi bat Atutxa bat eta Ortuondo baten artekoa. Fielak ziran batak besteari kontuak eskatzen eutsazan eta orduan holan inoan Atutxa horrek "baina zuk ez dozu gogoratzen nire alaba eta zure semea ezkondu ziranean zelan emon neutsan nik...". Holango parrafo bat sei-zazpi lerrotakoa baina kakoa zan ikusteko Atutxatik, Ortuondo-Atutxa izatera pasau dala.

Askotan kasualidadeak dira baina irakurri eta irakurri eta irakurri egin behar da, testu askok zure historiako balio ez arren.



BAZKIDETZEA

Lemoako Kotxepin Kultur Etxean bazkidetzeko kanpaina zabalik dago

Erredakzioa

Modalidade bi dagoz, Kotxepin lagun, 14 urtetik gorakoentzat eta Kotxepin txiki 14 urte artekoentzat. Bazkideek deskontuak izaten ditue bertako emonaldietan.

Bazkidetzeari www.lemoa.net webgunean egin daiteke. Kotxepin lagun izateko urteko kuota 20 eurokoa da; Kotxepin txiki bazkidetzeari egiten dabenean barriz, 10 euro pagau behar dabe.

Kotxepin Kultur Etxeko urtailerako martirako programazinoa be ikusi daiteke webgunean.



JANTZEA

Jantza astegoiena antolatu dau Aiko taldeak Areatzan



Erredakzioa

Hilaren 25 eta 26an izango da Areatzako eskolan eta izen-emotea zabalik dago. Partaideek Aiko taldeko irakasleak lau tailer egiteko aukerea izango dabe.

Zapatuan, 16:30ean, ikasleei ondoetorria egin eta ikastaroa aurkeztuko deutsee herriko eskolan. Tailerrok, *Kontraiantzak*, *Jotaren gorpuzkera eta aldaerak*, *Mazurka 2.0* eta *Mutxikoekin olgetan* dira. "Arratiako inguruan mutxiko edo jantza jauziak ezezagunak izan dira oin dala gitxirarte. Talde koreografia bat baino askoz gehiago dago mutxikoetan: erritmoa eta jantzea.

Mutxikoen egiturak ulertzeko eta modu desbardinetan barnerratzeko tartea izango dogu 90 minutuko tailer honetan" dinoo Aikokoek webgunean.

Izen-emotea

Izena emoteko mezu bat bialdu behar da bulegoa@aikotaldea.eus helbidera edo whatsapp bidez 634 423 539 zenbakira, honako hau adierazoz: Dantza asteburua Areatzan, izen-abizenak, email helbidea eta harremanetarako telefonoa.

Ikastaroaren prezioa 50 eurokoa da, baina 18 eta 30 urte bitartekoek debalde izango dabe.

ZINEKLUBA

Eguaztenetan izango da Igorreko Zinekluba aurten

Erredakzioa

Barrero martxan da Igorreko Zinekluba eta barrero ekarriko dauz hilean behin, karteldegian ez dagozan pelikula interesgarriak, zinezaleen gozamenetarako. Asteko eguna aldatu da aurten, eta hemendik aurrera eguaztenetan izango da, betiko moduan, 20:00etan Lasarte Aretuan. Urtailaren 15ean izango da aurtengo lehenengo saioa, *El olivo* Iciar Bollainen 2016ko pelikulea. Anna Castilloko, protagonistearen papeira egiten dauan aktoreak, 2017ko

Goya Saria jaso eban pelikula honetan egindako lanagaitik.

Sinopsia

Almak 20 urte ditu, eta asko maite dau aitita. Honek jateari uko egiten deusanean, familiak bere borondatearen kontra saldutako milaka urteko zugatza berreskuratzea ebazten dau Almak. Horretarako, ostera, krisiaren biktimea izan dan osabearen, Rafa lagunaren eta herri osoaren laguntasuna behar dau. Arazoa da jakitea Europako zein lekutan dagoan olibondoa.



DUNBA

Lurraskako esperientzia

LH6ko ikasleok Lurraskara joan ginan zemendiaren 11tik 13ra eta primeran pasau genduan. Eguraldia be ondo portau zan, egunez aterri egon zan eta ez eban hotz handirik egin.

Inazio Zubizarretako LH6ko ikasleak

Ikasle asko ginanez, hiru taldetan banandu behar izan ginduzan ekintza desbardinak egin ahal izateko. Tailerrak interesgarriak iruditu jakuzan:

- Pottoka gainean ibili. Batzuentzako lehenengo aldia izan zan.
- Animali eta gizakion aztarnak bilatu.
- Erlezaintza ezetu eta argizariagaz kandelak egin.
- Sendabedarrak ezetu, eukalipto orioa eta herbario txiki bat egin.
- Etxabereak ikusi (oilok, untxiak, behiak, zezena, usoa, ardiak, ahuntzak, txarriak, zaldiak...) eta jaten emon.

Ordu libreetan be oso ondo pasau genduan. Gehienoi gehien gustau jakuna, futbola eta futbolina izan ziran. Partidu onak bota genduzan, beste eskola batzuetako ikasleak olgetan.

Monitoreak oso lagungarriak ziran eta jolastorduetan eurekaz berba egiten genduan. Hiru taldeak alkartzean, jolastorduan, oso ondo pasetan genduan, espazio handia egoalako patioan jolasteko, eta horrek aukera asko emoten euskuzan. Patioan, futbol zelaiaz gainera, saskibaloizelaia, parketxo bat eta ibilteko ingurune politik egozan. Arrastian merienda hartzean genduan energia



berreskuratzeke. Patioa amaitu eta gero ekintzak jarraitzen genduan zazpirak arte.

Gauean dutxau ostean afaltzera joaten ginan. Amaitzean txandaka mahaia batu eta janlekua garbitzen genduan. Eta horren ostean...

jarraian disko-festara! Disko-festandanok batera jantzan egin eta abestu egiten genduan. DJ-ak geuk aukeratutako abestiak ipinten ebazan, horregaitik abestuten genduan ahotsa galdu arte. Guztien artean 6. mailako guztiok alkarrer



lotuta Mikel Laboaren *Txoria txori* abestea oso polita izan zan.

Jaia amaituten zanean ur-kantinplorearen bila joaten ginan logelara igoteko. Pijamea jantzi eta bildurrezko istorioak kontetan genduzan. Momentu horretan giro aproposa sortzeke isiltasuna eta linternen argia bakarrik izaten genduan logelan. Irakasleren bat logelara sartu zan, bildurra emotera edota bildurrezko istorioak kontetan.

Buelteterakoan pena handiagaz gengoan. Baina, hori gaintzeko batzuk abesten egon ginan eta leher eginda egozanez siesta-txo bat egiteko aprobetxau eben. Familia ikusteko irriketan gengoan, horregaitik eurakaz alkartzean oso pozik sentidu ginan.

Esperientzia ezin hobe izan zan. Gustauko litxakigu barrero bueltetea, horregaitik Olentzerori eskatzen deusaguz aste osoko txango oparitzea.

AGENDA

URTAILAK 2
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoietan, 09:00etatik 21:00etara.

Bonodenda kanpaina urtailaren 19ra arte. Bonuak Gauzak dendan salgai.

Hilaren 7ra arte, Garbigune mobikorra Gudarien Plazan. Bota daitekezan hondakinak: etxekotresna txikiak, sukaldeko tresnak, etxeko orioa, sakeleko telefonoak, kableak, pinturak eta disolbatzaileak, aerosolak, kutsatutako xurgatzaileak, tonerrak, tintazko kartutxoak, metalezko kapsulak, plastikozko kapsulak, pilak, CDak, DVDak, kaseteak eta erradiografiak.



Hilaren 14an izango dan *Ulertu eta hobetu zure etxeko faktura elektrikoa* tailerrerako izen-emotea arratia_berbalagun@gek.eus helbidean.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizau da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.



Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 13:30era eta

16:00etatik 20:30era. Publikoari arretea: astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

Urtailaren 7ra arte, *Bizkaiko Musikari Tradizionalak* erakusketea Kultur Etxean.



11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Gabonetako Umeen Parkea aterpean eta



Gerra baten protagonisten istorioa dakar Markeliñek Lasarte Aretora

Urtailaren 4an, 18:00etan, Markeliñe konpainiak *Zepo Zapo* antzezlan eskainiko dau Igorreko Lasarte Aretoran.

Keinu bidezko ikuskizuna da, familientzako, edozein gerraren istorioa kontetan dauana. Hobeto esanda, gerra baten protagonista diranen istorioa, emozinetik eta eszenaren egiatik sensibilizau gura dauana.

Sinopsia

Zepo gerrara joan zan... eta han bere moduko beste bat topau eban, baina desbardina. Soldadu etsai bi aurrez aurre. "Gaitztoa" bestea da, bera da-ta arrotza eta kanpoztarra. Baina holan pentsetan dabe biek. Zer egingo dogu orduan?

kiroldegian.

LEMOA

19:00etan, Ruth Guimeraren *Euskal marketing* bakarrizketea Karabie Gaztetxean.

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

URTAILAK 3
ARANTZAZU

18:00etan, jubiladuentzako bingoa eta txokolatea Kultur Gunean.

IGORRE

16:00etatik 20:00etara, Gabonetako

kirol kanpusa.

19:30ean, *Aho bete doinu*, Areatzako Banda eta Luis Iruarizaga Abesbatzaren Gabonetako kontzertua Lasarte Aretoran.

ZEBERIO

11:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 19:30era, Gabonetako Umeen Parkea.

URTAILAK 4
ARANTZAZU

Herri urtekera Pozalaguako kobazuloetara, ondoren Karrantzako jatetxe baten bazkaria. Udalak autobusa eta sarrerak ordaintzen ditu.

DIMA

10:00etatik 14:00etara, *Telazko poltsen tuneoa* tailerra. 12 urtetik gorakoentzat Zaztaparrakek antolatuta.

URTAILAK 5
ARANTZAZU

11:00etan, umeen jolas parkea frontoian.

AREATZA

18:00etan, Erregetako Kabalgatea Karpon hasita (eguraldi txarrazaz plazan).

BEDIA

18:30ean, Erregeen Kabalgatea frontoian.

DIMA

16:00etan, Dimako egoitzetara kantari.

IGORRE

18:00etan, Erregetako Kabalgatea. Ostein, Erregeak Kultur Etxean egongo dira umeen kartak jasoten.

19:30ean, presoen aldeko bertso saioa Axular Herriko Tabernan. Bertsolariak: Maite Sarasola, Unai Etxaburu eta Haizea Telleria.

LEMOA

23:00etan, Stankeik Karabie Gaztetxean. Kanta ezagunen bersinoak egiten dira kontzertuan. Stankeik ez da talde bateratu bat, ekimen autogestionau bat baino, "munduko kontzerturik popularrena", Harrikerarrak Gazte Asanbladearen arabera. Abestu gura dabenek aukeratuten dabe joko dabene kantua eta taldea, Lemoako eta inguruetako musikariak osotuten da.

URTAILAK 7
BEDIA

16:30etik 19:30era, zezeilaren 14tik 16ra Baqueirara egingo dan eski urtekerarako izen-emotea zabalik hilaren 16ra arte liburutegian.

URTAILAK 9
AREATZA

18:30ean, Udalaren irudi korporatiboa birsortzeko partaidetza saioa udaletxean.

URTAILAK 10
ARTEA

19:00etan, Irakurleen Txokoa, *Animalia domestikoak* Esti Martinez idazleak aurkeztuta eta Alaine Agirrek bideratuta. Kultur Etxean.

IGORRE

19:00etan, Igorre Kantuen, kantu poteoa Eguzki tabernatik hasita. Kantuen letrak eskuragarri egongo dira papelean edo Kantari app-ean be.

URTAILAK 12
IGORRE

17:00etan, zinea, *Niko, más allá de la aurora boreal*; 19:30ean, *Azken erromantikoak* Lasarte Aretoran.

URTAILAK 14
AREATZA

18:00etan, *Ulertu eta hobetu zure etxeko faktura elektrikoa* tailerra. Udaletxean. Arratiako Berbalagunak antolatuta.

URTAILAK 15
IGORRE

20:00etan, Zinekluba, *El olivo* (Iciar Bollain, 2016) filma Lasarte Aretoran.




GORBEIALDE
LANDA GARAPENA

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure amesetako etorkizuna sortu, zure barne bakea topatu eta bizitza orekatu. *Online* klaseak. Kontakua: 672 873 452 (Nerea).

BASERRIA SALTZEAN DA

Zeberion 750 m²ko baserrietxea salduen da inguruan landa zabalagaz. Interesdunek deitu 609 457 016 telefonora.

LONJEA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Lonjea saldu edo alokatzen dot Igorreko Lehendakari Agirre 9 zenbakian. Interesdunek 674 607 474 telefonora deitu.

LOGELA BILA

Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gitienez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

KAMARA FRIGORIFIKOA SALGAI

Neurriak: 2 m luze, 1,40 m zabal eta 2,20 m altuera. 2.000 euro. Interesdunek deitu edo mezua bialdu 689 119 930 telefonora.

LANA

ALEMAN ESKOLAK EMOTEN DIRA

Esperientzia luzeko alemaniarrik adin eta maila guztietako eskolak emoten ditu,

online eta aurrez aurre. Interesdunek deitu: 610 863 369.

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Esperientziadun andra euskalduna, umeak zaintzeako prest dago. Interesauta egotekotan, deitu 686 341 677 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako gradua PT aitamena gaz ikasi dot. Lehen Hezkuntzako ikasleei edozein arlotan klase partikularrak emoten deutesdaz. Interesdunek deitu edo idatzi 693 064 726 telefonora.

IRAKASLE BILA

Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bateri matematika emongo deusan irakaslea topetan nabil. Interesdunek deitu edo bialdu mezua 658 727 613 telefonora.

IRAKASLE BILA

LH 5. mailako ikasle bateri ingelesen klaseak emoteko irakasle bila gabiz. Interesdunek deitu edo idatzi 637 861 936 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezua bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Areatzako Udalak emondako **Dolu bat eta dolu bi** liburuaren ale bana.

2 Igorreko Kultur Etxeak emondako **bina sarrera Zepo Zapo** Markeliñeren antzezlanerako.

Ibon Iza (Dima)
Aitziber Gondra (Bilbo)

Klara Astondoa (Areatza)
Xabier Arana (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
Tlf. 94 631 92 00

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**
AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

begitu
eus



BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2025EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2025ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 40€ 60€ 80€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

ZORIONAK eta urte barri on!

